

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT). 2013ko 3. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %5,9 murriztu ziren 2013ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %2,3 nominala jaitsi da.

Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2013ko hirugarren hiruhilekoan, salmenta nominalak %5,9 jaitsi ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, eta lan-egutegi homogeneousetan. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %6,6 gutxitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %2,3 nominala jaitsi da, urtarotegirak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. III/2013(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-5,9	-2,3	-8,5	-3,2
Araba	-6,3	-3,6	-9,0	-5,1
Bizkaia	-6,4	-2,1	-9,0	-2,8
Gipuzkoa	-5,1	-1,9	-7,5	-3,0
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-4,5	-2,0	-7,2	-2,4
Elikagaietan espezializatuta	-5,2	-3,3	-9,4	-4,4
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-4,3	-1,2	-6,0	-1,6
Beste produktuak	-8,3	-2,5	-10,8	-3,5
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-8,1	-1,6	-13,5	-3,9
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-9,2	-2,8	-9,7	-2,5
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-7,5	-2,0	-7,5	-2,7
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-5,5	-3,9	-6,8	-2,4
Automoziorako erregaia	-2,1	-4,1	-1,8	-3,0
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-6,6	-2,2	-9,3	-3,0
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-5,4	-1,3		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %4,5 gutxitu ziren 2013ko hirugarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %8,3 gutxitu ziren eta automobilgintzarako erregai-salmenta %2,1, beti ere 2012ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %5,2 gutxitu zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua %4,3. Gainerako produktuen merkataritzan, jaitsierak sektore guztietan. Etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritza %9,2 gutxitu zen; pertsonaren ekipamendua %8,1; kontsumoko beste ondasunena %7,5 eta gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatua %5,5.

2013ko hirugarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %6,4 murriztu dira Bizkaian urte artean; lurraldeetako jaitsierarik handiena. Araban %6,3 gutxitu dira salmenta nominalak eta %5,1 Gipuzkoan.

Prezio finkoetan, prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %8,5 gutxitu ziren hirugarren hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe, %9,3ko jaitsiera erreala izan zuten 2012ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala %7,2 izan zen; gainerako produktuetan %10,8, 2012ko hiruhileko beraren aldean, eta automobilgintzarako erregai-salmentetan %1,8.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoak negatiboak izan dira bai espezializatuan, %9,4, bai elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %6,0. Gainerako produktuen merkataritzan, jaitsierak sektore guztietan. Pertsonaren ekipamenduan %13,5eko jaitsiera; etxearen ekipamenduan %9,7koa; kontsumoko beste ondasunetan %7,5ekoa, eta beste produktuak nagusi diren ez-espezializatuen salmentetan %6,8koa, beti termino errealean.

Hiru lurraldeetan izan zen jaitsierarik salmentetan termino errealean: Gipuzkoan %7,5, Araban eta Bizkaian %9,0.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealean %3,2ko jaitsiera izan da aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta. Araban %5,1 gutxitu, Bizkaian %2,8 eta Gipuzkoan %3.

Euskal AE osoan, 2013ko hirugarren hiruhilekoan, merkataritzako sektorean landunen kopurua %1,3 murriztu da bigarrenaren aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gainerako prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gainerako datu-bankua